

UDALAREN OSOKO BILKURA **2008ko azaroaren 27ko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EZ DA BERTARATU:

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.

EUSKARA-ITZULTZAILEA

JOSEBA URKIA jn.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko azaroaren hogeita zazpiko arratsaldeko zazpiak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- BIZKAIEDER 2000 S.L. LAMIAKO-TXOPOETAKO BBBPBn EGITEN ARI DEN SUSTAPENEAN 13 BOE ADJUDIKATZEKO OINARRIAK: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 25eko 485. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 3an hartu zuen 206. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako Udalak, 2004-09-30ean udalaren osoko bilkurak hartutako erabakiaren bitartez lehiaketa publiko egokia egin ondoren, Bizkaieder 2000 S.L. merkataritza-etxeari 14B Arloa (Lamiako-Txopoeta hutsik), desjabetze-sistemaren bidez, kudeatzeko eta egiteko administrazio-emakida adjudikatu zion.

Ostatu emateko kontratuaren baldintzak betetzeko, aipatutako merkataritza-etxeak lizentzia eskatu zuen, gunean 147 BOE eta hitzartutako prezioaren arabera 14 etxebizitza eraikitzeko. Aipatutako lizentzia 2006-11-21ean hartutako 698. erabakiaren bidez eman zen.

Gaur egun, eta, xehetasun gutxi falta bada ere espedientea ia amaituta dagoenean, 13 BOE adjudikatu gabe daude, eta beharrezkoa da soberan dagoen etxebizitza-kopuru horren adjudikazioa ahalbidetuko duen prozesuari hasiera ematea.

Ondorioz, udal zerbitzu teknikoek *LAMIAKO-TXOPOETAN SUSTAPEN PRIBATUKO 13 BOEren ADJUDIKAZIODUNAK HAUTATZEKO OINARRIAK* izeneko agiria egin dute, adjudikazio-prozedura arautuko duena; hona hemen ezaugarriak:

- **Etxebizitza-kopurua:** Honako kupo hauek banatzen dira:
 - 1. kupo: Mugikortasun urri iraunkorra duten ezindu eskatzaileentzat (3 etxebizitza).
 - 2. kupo: Bost kide edo gehiago dituzten bizikide-unitateentzat, izan ere, azalera erabilgarria 90 m² baino gehiagokoa da (4 etxebizitza).
 - 3. kupo: Gainerako eskatzaileentzat (6 etxebizitza).
- **Berrito ostatu hartzeko etxebizitzaren udal-erreserba:**

Leioako Udalak 3. kupoko 4 etxebizitza zuzenean adjudika ditzake, BOE eraikitzeko baliatutako eremua eta tranbiaren plataforma hartzen dituen hirigintza burutzerakoan Leioandi sektoreko ostatu-emateak eragin dituen bizikide-unitateen eskura jartzeko.
- **Zozketan parte hartzeko betekizunak:**
 - *2008ko maiatzaren 30a baino lehen (30a barne) Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak duen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta eskatu izana eta izena egoki eman izana, bai eta horretan alta eman izana ere.*
 - *Leioa udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez, bost urtez. 2008ko azaroaren 10etik aurrera hasiko da atzera zenbatzen, 10a barne.*
 - *Babes ofizialeko etxebizitza izateko legeriak eskatutako oinarrizko betekizunak betetzea, 2006. urtea gutxieneko eta gehieneko diru-sarrerak egiteko epea izango delako berezitasuna aintzat hartuta; izan ere, hori da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako aitortpena aurkezteko epea amaitu ondoren, etxebizitzaren behin-behineko kalifikazioaren dataren aurretikoa.*
- **Hautaketa-prozesua:**
 - *Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Leioako BOEren eskatzaileen zerrenda bidali du, eta bertan agertzen diren legeriak ezarritako betekizunak betetzen dituzte, alegia, aurreko atalean aipatutako datak.*
 - *Leioako Udalak datuak eta errolda-eskakizuna gurutzatu egingo ditu, horrela, zozketan onartuak eta baztertutak izan direnen zerrenda osatuko da.*
 - *Onartuen eta baztertuen zerrenda www.leioa.net web orrialdean argitaratuko da, bai eta egunkarian eta BAOn ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jartzeko, hilabeteko epean, BAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.*

Era berean, epe berean jendaurrean jarriko da zerrenda hori Bizkaieder 2000 S.L. merkataritza-etxearen langileek arreta eskainiko duten lokal batean, Langileria kaleko 114. zenbakian.

- *Aurkeztutako berraztertze errekurtsoak ebatzi ondoren eta, hala badagokio, ebazpenen ondoriozko zerrendak zuzendu ondoren, notario aurrean etxebizitzaren zozketa egiteko adjudikaziodunak hautatuko dira.*

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez, **LAMIAKO-TXOPOETAN SUSTAPEN PRIBATUKO 13 BOEren ADJUDIKAZIODUNAK HAUTATZEKO OINARRIAK** izeneko agiria onestea.
- Alkate-udalburuari agiri publiko eta pribatu guztiak gauzatzeko ahala ematea, besteak beste, zerrenden onespena, prozedura sustatu eta gauzatzeko.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** onetsi egingo direla Bizkaieder 2000 S.L. merkataritza-etxea Lamiako-Txopoetako BBBPBn egiten ari den sustapenean 13 BOE adjudikatzeko oinarriak, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

2.- BIZKAIEDER 2000 S.L. MERKATARITZA-ETXEAREN KONPROMISO-GUTUNA, LAMIAKO-TXOPOETAKO BBBPBn EGITEN ARI DEN SUSTAPENEAN HITZARTUTAKO PREZIOAREN ARABERAKO 14 ETXEBIZITZA ADJUDIKATZEKO: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 25eko 486. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2008ko ekainaren 3an hartu zuen 207. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako Udalak, 2004-09-30ean udalaren osoko bilkurak hartutako erabakiaren bitartez lehiaketa publiko egokia egin ondoren, Bizkaieder 2000 S.L. merkataritza-etxeari 14B Arloa (Lamiako-Txopoeta hutsik), desjabetze-sistemaren bidez, kudeatzeko eta egiteko administrazio-emakida adjudikatu zion.

Baldintza Agirietan eragiketaren ekonomia- eta finantza-segurtasuna bermatzeko babestutako etxebizitza-kopurua handitzeko hobekuntzarik balioztatuko ez zela adierazten bazen ere, jada, aprobetxamendu-ereduak EL/BOE harremana nahiko adosten zuenez, Bizkaieder 2000 S.L. enpresak berriro ostatu emateko BOEn blokea honela osatzeko eskaintza egin zuen:

“Gainerako etxebizitzak eta metro koadroak (713,63 metro koadro eta 15 etxebizitza, edo udal-araudiak araututako etxebizitzaren gutxieneko neurria aztertu ondoren geratzen dena) etxebizitza tasatuak egiteko baliatuko dira, etxebizitzako metro koadroengatik gehieneko salmenta ezarrita, % 25eko igoerarekin, egun 5.1. eraikinaren behin-behineko kalifikazioan indarrean dagoen BOEren moduluaren aldean...”

Burutzapen-proiektuan neurriak zehaztu ondoren, Bizkaieder 2000 S.L. enpresak gunean 147 BOE eta hitzartutako prezioaren arabera 14 etxebizitza eraikitze lizentzia eskatu zuen. Aipatutako lizentzia 2006-11-21ean hartutako 698. erabakiaren bidez eman zen.

2008-11-18an 8.450 zenbakidun erregistroari sarrera eman zitzaion. Horren bidez, aipatutako enpresak eskaintza egiten du berriro ere: udalak berak hautatutako bizikide-unitateei hitzartutako prezioaren arabera 14 etxebizitza eskaini ahalko dizkio, BOEren 1,25 moduluan. Kontuan hartu beharko da enpresak BBBPBk eragindakoen ostatu-emateko beharrak asetzeko 3 etxebizitza gordeko dituela, kautelazko neurri gisa, eta Leioako Udalak Leioandi sektorean gerta litezkeen ostatu-emateei aurre egiteko, gehienez ere, 4 etxebizitza gorde ahalko dituela.

Aipatutako konpromiso-gutunak, enpresaren eta udal-ordezkarien artean izandako elkarrizketei jarraiki, notario aurrean egindako zozketa publikoaren adjudikaziodunei etxebizitzak adjudikatzea proposatzen du, **honako betekizunak beteko dituzten** eta Leioako Udalak emango duen eskatzaileen zerrendakoak:

- *2008ko maiatzaren 30a baino lehen (30a barne) Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak duen Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta eskatu izana eta izena egoki eman izana, bai eta horretan alta eman izana ere. Araubide orokorreko BOEn eskatzaileak ez ezik, etxebizitza tasatuen eskatzaileak ere kontuan hartuko dira, eta sarrerren gehiengo handitu ahalko da, 1,3 koefizientea aplikatuta.*
- *Leioa udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez, bost urtez. 2008ko azaroaren 10etik aurrera hasiko da atzera zenbatzen, 10a barne.*
- *Babes ofizialeko etxebizitza izateko legeriak eskatutako oinarrizko betekizunak betetzea, 2006. urtea gutxienez eta gehienezko diru-sarrerak egiteko epea izango delako berezitasuna aintzat hartuta; izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egiaztatutako azken ekitaldia da.*
- *Etxebizitzek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen karga izango dute Leioako Udalaren alde, hogeituro urteko epean.*

- Hautaketa-prozesua:

- *Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Leioako BOEn eskatzaileen zerrenda bidali du, eta bertan agertzen direnek legeriak ezarritako betekizunak betetzen dituzte, alegia, aurreko atalean aipatutako datak.*
- *Leioako Udalak datuak eta errolda-eskakizuna gurutzatu egingo ditu, horrela, zozketan onartuak eta baztertuak izan direnen zerrenda osatuko da.*
- *Leioako Udalak onartuen zerrenda Bizkaieder 2000 S.L.ri bidaliko dio.*
- *BOEren eta hitzartutako prezioaren arabera etxebizitzak zozketa notarioaren aurrean egun berean egin badaiteke ere, Bizkaieder 2000 S.L. enpresak udalari behin eta berriro esan dio zein garrantzitsua den zozketa ahalik eta denborarik laburrenean egitea, etxebizitza horiei dagokien zenbateko ekonomikoa berehala ordaintzeko. Hori dela eta, BOEn zozketa aurreratzekotan, fidagarritasunez jakinarazi beharko du, eta, hala bada, gastuak bere kontura izango dira.*

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Osoko bilkuraren erabaki honen bidez, Bizkaieder 2000 S.L. enpresak bidalitako konpromiso-gutunaren edukia onestea.
- Bizkaieder 2000 S.L. enpresari notario aurreko zozketa publikoan parte har dezaketen bizikide-unitateen zerrenda bidaltzea, izan ere, horiek aurretik aipatutako betekizunak betetzen dituzte.
- Bizkaieder 2000 S.L. enpresak Leioako Udalari jakinaraziko dio BOEn zozketa egin arte itxaron nahi ote duen edo, alderantziz, bere kontura aurreratu nahi duen hitzartutako prezioaren araberako etxebizitzaren zozketa; hala ere, zerrendak jende guztiarentzat izan daitezen onartu beharko da.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez, erabaki du** onetsi egingo dela Bizkaieder 2000 S.L. merkataritza-etxearen konpromiso-gutuna, Lamiako-Txopoetako BBBPBn egiten ari den sustapenean hitzartutako prezioaren araberako 14 etxebizitza adjudikatzeko, Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

3.- SOINU ATADIA FUNDAZIOAREN KREDITUAK ALDARAZTEKO LEHENENGO ESPEDIENTEA, 2008KO KONPROMETITU GABEKO GERAKINAREN PENTZURA:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 25eko 500. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko azaroaren 18an hartu zuen 200. irizpenak honakoa dio:

Soinu Atadia Fundazio Publikoko lehendakariaren 2008ko azaroaren 12ko 48/2007 ebazpenak honakoa adierazi du: "Ohi denez, aurrekontuko edukiaren garapenak berak eskatzen du diru-sarreraren eta gastuen doikuntza egokiak egitea, errealitatera egokitzeko". Aztertu da ebazpena.

Hori dela eta, udaleko kontu-hartzailtza eta kontabilitateko zerbitzuen laguntzaz, kredituak aldatzeko 1. espedienteari dagokion proposamena aurkeztu da. Hona hemen proposamena:

KREDITU-ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA	EUROAK	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK	EUROAK
Konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzurako kreditu-gehigarria	870/01 konprometitu gabeko gerakina	14.881,90 €	1125/1300200 Bestelako ordainsariak	14.881,90 €
Konprometitu gabekoa				
	GUZTIRA	14.881,90 €		14.881,90 €

Aztertu da kontu-hartzailearen txostena, eta aurrekontuaren burutzapen-egoera aztertu ondoren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuaren gaineko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluari eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren seigarren oinarriari jarraiki

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio kredituak aldarazteko 1/2008 espedienteari, konprometitu gabeko gerakinaren konturako kreditu-gehigarriaren modalitatean.
2. Berau onesteari buruzko puntua udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.

Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Soinu Atadia Fundazioaren kreditu-aldaketaren lehenengo espedientea onetsi egingo dela, konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

4.- SOINU ATADIA FUNDAZIOAREN KREDITUAK ALDARAZTEKO LEHENENGO ESPEDIENTEA, FUNTZIO-TALDE EZBERDINETAKO KAPITULUEN ARTEAN: Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 25eko 501. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008ko martxoaren 11n hartu zuen 201. irizpenak honakoa dio:

Soinu Atadia Fundazio Publikoko lehendakariaren 2008ko azaroaren 12ko 47/2007 ebazpenak honakoa adierazi du: “Ohi denez, aurrekontuaren bilakaerak berak eskatzen du diru-sarreraren eta gastuen doikuntza egokiak egitea, errealitatera egokitzeko”. Aztertu da ebazpena.

Hori dela eta, udaleko kontu-hartzailetza eta kontabilitateko zerbitzuen laguntzaz, kredituak aldatzeko 1. espedienteari dagokion proposamena aurkeztu da. Hona hemen proposamena:

KREDITU-ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA	<u>EUROAK</u>	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK	EUROAK
Funtzio-talde ezberdinetako kapituluaren arteko kreditu-transferentziak	9114/226.03.00 Publizitatea	14.520,00 €	1125/628.00.00 Partiturak, diskoak, kaseteak 1125/226.98.01 Kantika, Proiektu Berezia	1.520,00 € 13.000,00 €
	GUZTIRA	14.520,00 €		14.520,00€

Aztertu da kontu-hartzailearen txostena, eta aurrekontuaren burutzapen-egoera aztertu ondoren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuaren gaineko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluari eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren seigarren oinarriari jarraiki

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio kredituak aldarazteko 1/2008 espedienteari, funtzio-talde ezberdinetako kapituluaren arteko kreditu-transferentziak modalitatean.
2. Berau onesteari buruzko puntua udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.

Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Soinu Atadia Fundazioaren kreditu-aldaketaren lehenengo espedientea onetsi egingo dela, funtzio-talde ezberdinetako kapituluaren artean, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

5.- AZAROAREN 25a, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA EGINGO DEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 25eko 516. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Osasuneko Informazio Batzordeak 2008ko azaroaren 19an hartu zuen 135 zenbakidun irizpena, eta honakoa adierazten du:

Berdinsareak (berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) bidalitako adierazpen instituzionalaren ereduaren berri eman da. Honakoa da:

AZAROAREN 25a-EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA EGINGO DEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Leioako Udalak jakinarazi nahi du indarkeria matxistak eragindako gaitz sozialaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa duela.

Gai honen inguruan antolatuko diren ekintzak emakumeen babesa eta autonomia bermatzera egon behar dira zuzenduta, indarkeria mota honen biktima nagusiak emakumeak baitira.

Dena dela, emakumeenganako indarkeria ez da ulertu behar “emakumeen” arazo legez, baizik eta kultura maskulino-patriarkalak eragindako desberdintasunaren adierazgarri nagusizat; izan ere, kultura horrek indarkeria mota hau eragin eta toleratzen du, eta gauza bera gertatzen da era desberdinetan eta esparru desberdinetan indarkeria hori gauzatzen dutenekin ere.

Beraz, alde batetik, arau horiek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunean oinarritutako kultura baterantz bideratu behar dira; eta, bestetik, gizonak estrategia horietan sartu behar dira, indarkeria mota oro desagerrarazteko borrokan emakumeekin batera aktiboki kolaboratzera konprometituaziz.

Hori dela eta, Udal honek ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko. Udal politika horren barruan, beste tresna batzuen artean, indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako tokiko protokoloa sartu behar da.

Aurten, DEI BEREZIA EGITEN DIEGU herriko gizonei, batetik, emakumeenganako indarkeriaren aurkako konpromiso aktiboa onar dezaten, eta, bestetik, gaur egun oraindik gizartean hedatuta dauden jarrera eta mentalitate sexistak zalantzan jartzeko.

Era berean, GONBIT EGITEN DIEGU herritar guztiei, eta bereziki gizonei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak aho batez erabaki du gai hau udalaren osoko bilkuran eztabaidatzea.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** onetsi egingo dela azaroaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna izeneko erakundeen adierazpena, Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.

6.- URTE ANITZEKO GASTUAREN ONESPENA, 2009, 2010 ETA 2011KO AURREKONTUEN PENTZURAKOA, ERROTULATU GABEKO IBILGAILU BAT RENTING KUOTAREN BITARTEZ ESKURATZEA FINANTZATZEKO: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko azaroaren 25eko 206. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzordeak 2008ko azaroaren 18an egindako bileran udal kontu-hartzaileari Udaltzaingoak errotulatu gabeko ibilgailu bat renting kuotaren bitartez eskuratzeari buruz emandako txostena bidaltzeko irizpena eman da, urte anitzeko gastua baita.

Aztertu da kontu-hartzailearen txostena, eta honakoa adierazten du: renting kuotaren bitartez ibilgailua eskuratzeko aurkeztutako baldintzak aintzat hartuta, 00400/22210/203.00.00 aurrekontu-partida ezarri behar da ("renting sistemaren bidezko ibilgailuaren gastuak"); hona hemen zehaztasunak:

2009. urtea	
12 hilabete x 909,59 € kuota =	10.915,00 € / urtean
2010. urtea	
12 hilabete x 909,59 € =	10.915,00 € / urtean
2011. urtea	
6 hilabete x 909,59 € =	5.457,54 € / urtean

Gastu hori onestea osoko bilkuraren eskumenekoa da, baina nahitaezkoa da kontu-hartzailearen txostena eta Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpena. Hori guztia kontuan hartuta eta hasieran onetsi ondoren, jendaurrean azaldu behar da 15 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespena behin betiko dela ulertuko da, Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauari, martxoaren 4ko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuari eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuari jarraiki, bai eta Aurrekontua Betearazteko Foru Arauan ezarritakoari ere.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio urte anitzeko gastuari buruzko espedienteari, errotulatu gabeko ibilgailu bat renting kuotaren bitartez eskuratzeko, 2009, 2010 eta 2011ko aurrekontuen pentzura.
2. Berau onesteari buruzko puntua udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.

Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** onetsi egingo dela urte anitzeko gastua, 2009, 2010 eta 2011ko aurrekontuen pentzurakoa, errotulatu gabeko ibilgailu bat renting kuotaren bitartez eskuratzeko, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

7.- LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANA: Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2008ko azaroaren 25eko 114. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Informazio Batzorde honek, azaroaren 18an egindako batzarrean, 112/08 zenbakidun irizpena hartu zuen; hona hemen, hitzez hitz:

“Batzordekideei “Erabilera Plana”ren proposamena aurkeztu zaie, udal-eremuan euskara gehiago erabiltzeko neurriak hartzen dituen agiria.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio gaia aztertzeko mahai gainean uzteari eta Batzordearen hurrengo bilera batean irizpena emateari.”

Batzordeari jakinarazi zaio 2008ko maiatzaren 29an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onetsi zela eta, oraingoan, horren ondoriozko planaren gaineko irizpena eman behar dela, nahiz eta udalari eragiten dion.

PSE-EE-PSOEren ordezkariak hainbat galdera egin dituzte, 1.1.1, 1.2, 2.1, 3.1, 9.2 eta 11.1 atalen gainekoak; alegia, hizkuntza-gaitasunari, euskarazko komunikazio idatziari, errotulazioari eta diru-laguntzak emateari buruzkoak.

PPren ordezkariak herritarrekiko ahozko komunikazioari eta erakundeetan eta trafiko-seinaleetan euskara erabiltzeari buruzko 2.1.3, 9.1 eta 9.2 atalen idazketaren gaineko kontrako irizpidea aurkeztu du.

Gobernu-taldearen ordezkariak plan hau EBPN izenekoak ezarritako irizpideei dagokiela azaldu du, eta, edonola ere, Euskararen Erakunde Autonomoari dagokionez, PSE-EE-PSOE udal-taldeak egindako galderen eta PPren ordezkariak aurkeztutako jarreraren berri emango zaiola erakunde autonomo horren buruari, talde horiek

proposatutakoari erakundeak berak erantzun diezaion edo azalpen egokiak eman diezazkion.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak, EAJ-PNVren ordezkarien lau botoak, EB-Bren ordezkariaren botoa eta PSE-EE-PSOEn ordezkarien hiru botoak lortuta, eta azken horiek aurretik aipatutako atalen gainean dituzten zalantzak aintzat hartuta, Leioako Udalaren Euskararen Erabilera Planaren aldeko irizpena eman du, eta proposatutakoa aintzat hartu du, bai eta PPren ordezkariaren abstentzioa ere.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Aurkeztu den plana beharrezkoa da euskararen erabilera gure erakundearen sustatzeko eta, halaber, garrantzitsua da, datozen lau urteotako lan-ildoak batzen dituelako. Oro har, ia neurri guztiekin gaude ados, baina planaren 9. puntuari buruz Batzordean esandakoari eusten diogu, alegia, hizkuntza-paisaiari eta udalaren barneko errotulazioari buruz esandakoari. Euskararen Erakundearen buruarekin mintzatu gara, baina ez dira gure proposamenak onartu eta, hori dela eta, gaur abstenitu egingo gara.

Gure iritziz, hurrengo lau urteotan orain arteko lan-ildoak aldatu behar dira, izan ere, egun arte euskararen aldeko sustapen sendoagoa egin behar zela uste izan da eta, une honetan, hizkuntza ofizialen tratamendua parekatzen saiatu behar dela uste dugu, euskararen sustapenak gaztelaniaren gutxiespena eragin ez dezan. Hori dela eta, egoki irizten diogu seinale eta errotulazioetan hizkuntza biek tratamendu bera izateari.

Bestalde, ez gaude ados udal langileak lehenengo berba euskaraz esateko beharrezkin, izan ere, gure ustez, Leioako herritarrak eskubidea du gaztelaniaz agurtu dakion eta, hori dela eta, lehenengo berbak ez du beti zertan euskaraz izan.

Edonola ere, plana, oro har, egokia dela uste dugu, baina desadostasun txiki horiek absteni gaitetzen eragin dute.

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Neurri handi batean, planari egindako kritikekin bat gatoz, nahiz eta argudiorik gehienak azaldu egin ziren udalerrian Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jarri zenean. Uste dugu, egun, helburua dela euskara erakundearen bertan ezartzea.

Oro har, planari babesa ematen diogu, baina, hala ere, osoko bilkura hasi aurretik egin ezin izan diren zenbait zehaztasun egin daitezela eskatu nahi dugu. Horretarako, baliteke zenbait protokoloen bidez hutsuneak zuzendu ahal izatea.

Euskara errotulazioetan eta gainerakoetan erabiltzean, ez dugu uste kalte egiten zaionik gaztelaniari; azken batean, planaren aldeko botoa emango dugu, Euskararen Erakundearen buruak proposatutakoari kalte egin gabe.

EAJ-PNVko Jon Peli Lazkano Alzaga jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Agiri hau duela lau hilabete aurkeztutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izenekoaren osagarria da. Agiri honek tresna zehatzak baliatzeko aukera eskaintzen du, orduan zehaztutako helburu jakinak lortu ahal izateko, batik bat, Administrazioaren barnean.

Beste alde batetik, tresna honek ez du osoko bilkuraren onespenez behar, baina hedatzeko eta laguntzen kudeaketa eta beste administrazio batzuen laguntza errazteko asmotan aurkeztu dugu.

Udal taldeetako ordezkariari nahi beste argibide emateko asmoa dut, baina hura ezingo da ulertu, euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duen egoera aintzat hartu ezean; izan ere, hizkuntza gutxitua da eta arazoak, gaztelaniadunak barik, euskaldunak ditu.

Adibide gisa, gure informazio batzordeetako aktak ez dira euskaraz sortzen, eta gure asmoa da, gaztelania hizkuntza bakarra den eremuetan, euskara ere horietara hedatzea.

Uste dut planak euskararen azterketa eta erabilera errazteko egintza egokituak aurreikusten dituela, itzulpen zuzenagoak egiteko informatika-aplikazioei buruzko ikastaro laburrak, eta, oro har, hizkuntza hori erabil dadin erraztasunak eskaintzea du helburu.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: aldeko hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EEko bost zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; hiru abstentzio ere egon dira, PP taldeko hiru zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** Leioako Udalaren Euskararen Erabilera Plana **oneste**a.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

8.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2008-10-25etik 2008-11-08ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epaldian Alkatetzak emandako dekretuen kopia azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

9.- PREMIAZKO MOZIOAK:

LEHENENGO MOZIOA:

MASTITXU UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDARAZTEKO LEHENENGO ESPEDIENTEA, KONPROMETITU GABEKO DIRUZAINZAKO GERAKINAREN PENTZURAKO KREDITU-GEHIGARRIAREN MODALITATEAN. Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko azaroaren 25eko 210. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

MASTITXU UDAL EUSKALTEGIA Erakunde Autonomoaren Artekari Kontseiluaren 2008ko azaroaren 27ko 22 zenbakidun ebazpenaren bidez, kredituak aldarazteko lehenengo espedientea oneste proposatu da, 2008ko konprometitu gabeko diruzaintzako gerakinaren pentzura; honako xehetasun hau du:

KREDITU-ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA	EUROAK	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK	EUROAK
Konprometitu gabeko gerakin likidoaren pentzurako kreditu-gehigarria Konprometitu gabekoa	870/01 konprometitu gabeko gerakina	35.000,00 €	42120/130.02.00 Bestelako ordainsariak	35.000,00 €
	GUZTIRA	35.000,00 €		35.000,00 €

Kontu-hartzailearen txostenak proposatutako espedientea onesteko eragozpenik ez dagoela adierazi du. Aztertu da txostena eta martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuak, apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak eta abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ezarritakoa betetzeko, eta Aurrekontua Betearazteko Udal Arauaren seigarren oinarriari jarraiki, Udaltzataren osoko bilkurari dagokio onestea, baina aurretik kontu-hartzailearen txostena eta Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia irizpena behar da, eta aurretiaz jendaurrean ere azaldu beharko da, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio Mastitxu Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren kredituak aldarazteko lehenengo espedienteari, konprometitu gabeko gerakinaren pentzurako kreditu-gehigarriaren modalitatean.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da, premiazko mozio gisa; izan ere, ez dago gai-zerrendan sartuta.

Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

PREMIAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udaltzataren Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Aldeko hogei boto egon dira, bilerara berataratu diren zinegotzi guztienak; beraz, udalak, gehiengoaren aldeko botoekin, aurkeztutako mozioaren premia **onartu** du. Jarraian, bozketa egin da eta emaitza honakoa izan da:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, bilerara bertaratutako hogeitaz zinegotzietatik **ahoz bidez** erabaki dutelako, **erabaki du onetsi** egingo dela Mastitxu Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren kredituak aldarazteko lehenengo espedientea, konprometitu gabeko diruzaintzako gerakinaren pentzurako kreditu-gehiarriaren modalitatean.

BIGARREN MOZIOA

SALEROSKETA-ESKRITURAK SINATZEKO ESKUMENA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko azaroaren 25eko 211. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, hark berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkate jaunak eskumen berezia eman dio Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari, zinegotzia eta Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren buru denari, Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelak saltzeko eskritura publikoak sina ditzan. Hori guztia 1582/2008 Dekretuaren bidez egin du; Dekretuak honakoa dio, hitzez hitz:

1582. DEKRETUA:

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 43, 44 eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera, alkateak bere eskumenak eskuordetu ditzake, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan adierazitakoak izan ezik, aipatutako araudian adierazitako terminoei jarraituz.

Eskuordetze berezia egin behar da **IÑAKI GOIKOETXEA GORDO zinegotzi eta Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziko burua** baimentzeko, Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelak saltzeko eskritura publikoak sinatzeko funtzioak har ditzan, aipatutako partzelak besterentzeko lehiaketaren espedientea amaitu ostean.

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 43. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera,

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Iñaki Goikoetxea Gordo zinegotzi eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziko buruari eskuordetuko zaio Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelen salerosketako eskriturak sinatzeko eskumena. Horiek, lehiaketaren bidez besterendu dira.
2. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eskriturak sinatzeko eskumenaren eskuordetzea.

3. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskuordetze hau udalaren osoko bilkurari jakinaraziko zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.”

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Egindako eskumenaren jakinaren gainean eta horrekin ados egotea.
2. Eskumenari buruzko espedientea Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da, premiazko mozio gisa; izan ere, ez dago gai-zerrendan sartuta.
3. Eskriturak sinatzeko eskumenaren eskuordetzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.2. artikulua ezarritakoa betetzeko.

PREMIAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Aldeko hogeitoto egon dira, bilerara bertaratu diren zinegotzi guztienak; beraz, udalak, gehiengoaren aldeko botoekin, aurkeztutako mozioaren premia **onartu** du. Jarraian, bozketa egin da eta emaitza honakoa izan da:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, bilerara bertaratuak hogen zinegotzietatik **ahotzez** erabaki dutelako, **erabaki du onetsi egingo dela** salerosketako eskriturak sinatzeko eskumena.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK.

LEHENENGO GALDERA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Zoritxarrez, udalari zerbitzu ematen dieten zenbait langileren artean gatazkak daude, etxez etxeko laguntzaileen artean, hain zuzen ere. Zenbait hilabeteren ondoren, berriro ere planteatu dira lan-baldintzen artean dituzten arazo edo desadostasun horiek.

Gogoko genuke Gobernu Taldeak arazoa behin betiko konpontzeko neurri egokiak har ditzan eta azalpen egokiak eman diezazkigun, dela osoko bilkuran, dela Gizarte Ekintza Batzordean; Gobernu Taldeak konpromisoak hartu beharko ditu bere gain eta neurriak hartu beharko ditu langileek beren lanerako baldintza egokienetan lan egin dezaten.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Etkez etxeko laguntzaren arazoa, gogoratuko duzueenez, greban zegoen langile-talde batek itxi zuen, zerbitzu ematen zutenen artean gutxiengoak eta langile finko edo lanaldi osoko langileen artean gehiengoak.

Ez dakit udalak berak gatazka konpontzen lagundu ote zuen, baina hasieratik bukaera arte jarrera bera izan zuen; izan ere, langileei azaldu zien udalak 2009. urterako lehiaketaren deialdia egitean, konpromisoa hartuko duela baldintza-agirien eranskinean sinatu beharreko lankidetzaz hitzarmeneko hobekuntza guztiak jasotzeko, dagoeneko dauden hobekuntzak mantentzeaz gain. Bestalde, esan zuen konpromisoa hartuko duela kontrataziorako baldintza-agiriak egitean, langileei parte-hartzea eskaintzeko.

Esan beharra dut Euskal Autonomia Erkidego osoan ahalegin handia egin dela etkez etxeko laguntza zerbitzua arrazionalizatzeko eta homegeneizatzea lortu dela, gobernuan nor dagoen ere, herritarrek zerbitzu hori izateagatik orduko zenbateko jakina ordainduz. Bestalde, zenbateko hori Leioako herritar bakoitzeko igi nahi duenak arrazoiak eman beharko ditu, izan ere, beste zenbait udaletan ordaintzen dena baino kopuru altuagoa da.

Azken batean, baldin eta baldintzak homogeneoak badira eta autonomia erkidego osoan erabaki orokorra badago, uste dugu oso modu zehatzean arrazoitu beharko direla aldaketa horiek.

Eta arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,